EBAZPENA, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, 351/2025 prozedura arruntari buruzko administrazio-espedientea bidaltzeko xedatzen duena eta interesdun izan daitezkeenei epatzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia Administrazio-Auzietako Salaren 2. Atalak eskatu du 351/2025 prozedura arrunteko administrazio-espedientea bidaltzeko. Administrazio-espediente hori pertsona batek jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzkoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Goi Mailako Teknikarien Kidegoko Arreta Soziolaboraleko eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezi eta salbuespenezkoetan hautatutako pertsonen behin betiko zerrendei eta esleitu beharreko lanpostuei buruzko Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2024/12/17ko Ebazpenaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoaren ustezko ezespenaren aurka.

Auzi-errekurtso hori izangai batek lanpostuak hautatzeko izapidea ez egiteari buruzkoa da.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluak xedatzen duenarekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

**Lehenengoa**.– 351/2025 Prozedura Arruntean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia Administrazio-Auzietako Salaren 2. Atalak eskatutako administrazio-espedientea bidaltzea.

**Bigarrena**.– Aipatutako espedientean interesdun izan daitezkeenei dei egitea, bederatzi eguneko

RESOLUCIÓN, de la directora del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se dispone la remisión del expediente administrativo relativo al Procedimiento Ordinario número 351/2025 y se emplaza a las posibles personas interesadas.

Por la Sección 2ª de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha sido requerida la remisión del expediente administrativo en el procedimiento ordinario número 351/2025, relativo al recurso contencioso-administrativo interpuesto por una persona contra la desestimación presunta del recurso de alzada interpuesto contra la Resolución de 17/12/24 del Instituto Vasco de Administración Pública -BOPV 247 de 20/12/24- sobre relaciones definitivas de personas seleccionadas y puestos de trabajo objeto de adjudicación en los procesos especial y excepcional de consolidación de empleo en la escala de Atención Sociolaboral del Cuerpo Superior Facultativo de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El mencionado recurso trata sobre la no realización del trámite de elección de puestos de una aspirante.

De conformidad con lo preceptuado en el artículo 49.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa,

RESUELVO:

**Primero**.– Remitir el expediente administrativo solicitado por la Sección 2ª de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el procedimiento ordinario número 351/2025.

**Segundo**.– Emplazar a las posibles personas interesadas en el referido expediente para que


Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

epean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia Administrazio-Auzietako Salaren 2. Atalean ager daitezen eta 351/2025 zenbakiko prozedura arruntean alderdi gisa pertsonatu daitezen.

**Hirugarrena**.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoarekin bat.

puedan comparecer en el plazo de nueve días en la Sección 2ª de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco y personarse como parte en el procedimiento ordinario número 351/2025.

**Tercero**.– Notificar esta Resolución a las personas interesadas, según lo previsto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

LEIRE CORRALES GOTI - 44973431J

Digitalki sinatuta norengandik: LEIRE CORRALES GOTI - 44973431J
Data: 2025.07.15 16:02:21 +02'00'

**Leire Corrales Goti**
Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria
Directora del Instituto Vasco de Administración Pública